

FUNTSEZKO SOZIETATEAK _ ELKARTEAK _ ALIANTZAK

Enpresa bat sortzeak askotariko lanak eta abileziak praktikan jartzea dakar. Gu konturatzen gara ezin ditugula gure enpresa sortu eta kudeatzeko lan guztiak eraginkortasun osoz egin. Hori dela eta, proiektua aurrera eramateko gauza batzuk azpikontratatu egingo ditugu edota aliantza batzuk sortuko ditugu ondorengoekin:

- **Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak**

Gipuzkoako Udaletxe guztietako asistentzia sozialekoekin akordioa egin dugu. Haiek edozein zeregin egitera iritsiko ez balira, gure enpresa proposatuko diete familiei, adinekoei lagundu ahal izateko. Horrela denok irabazten dugu.

- **Erosleekin harremanak**

Gure webgunean “eremu pertsonala” deituko den atal bat jarriko dugu. Bertan, gure bezeroek adineko pertsonaren fitxa bat beteko dute, pertsonaren ezaugarriak, ezgaitasunak, zaintza behar zehatzak, iradokizunak... helarazteko.

- **Hornitzaileekin harremanak, materialen eskuragarritasuna bermatzeko**

Gure negozioaren kudeaketa administratiboa eramatearen lana aholkularitza enpresa bati azpikontratatu diogu (kontabilitatea, zerga ordainketa...).